

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URIZAHARREKO UDALA

Behin betiko onestea zenbait zerga ordenantza aldatzea

Udalbatzak 2018ko irailaren 6ko bilkuran onetsi zuen zenbait zerga ordenantza arautzaile aldatzeko erabakia, eta hori jendaurrean jartzeko epea amaiturik, ez da erreklamaziorik egin, epe horretan, erabakiaren aurka. Hori dela-eta behin betiko bihurtzen da erabakia, bat etorritik apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49 c) artikuluan xedatutakoarekin. Aldatutako ordenantzak honako zerga hauenak dira: ondasun higiezinaren gainekoa; eraikuntzen, instalazioen eta obren gainekoa, eta hiri lurren balio gehikuntzaren gainekoa.

Bestalde, udalbatzak, 2018ko azaroaren 15eko osoko bilkuran, erabaki zuen behin betiko onestea Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren zergapetze aldaketa eta zerga hori arautzen duen ordenantza aldatzea, behin 2018ko irailaren 21ean egindako erreklamazioa ebatzita.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, osorik argitaratzen dira aldatutako ordenantzen testu osoak.

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauan eta tributu honi buruzko foru arauan ezarritakoarekin bat etorritik, udal honek ondasun higiezinaren gaineko zerga eskatzen du ordenantza honen arabera, zeinaren osagai baita tarifa aplikagarria eta zerga biltzeko aldia jasotzen dituen eranskina.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

1. Zerga egitatea da landa eta hiri ondasun higiezinaren eta ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinaren gaineko eskubide hauen titulartasuna:

a) Administrazio emakida bat, ondasun higiezinaren beren gainean, edo ondasun higiezin horiek atxikita dauden zerbitzu publikoen gainean.

b) Azalera eskubide erreal bat.

c) Usufuktu eskubide erreal bat.

d) Jabetza eskubidea.

2. Aurreko paragrafoan azaldutako zerga egitateetako bat, ezarritako hurrenkerari jarraituz, gertatuz gero, ondasun higiezina ez da egongo zergaren kargapean beste modalitateetan.

3. Zerga honi dagokionez, landa, hiri eta ezaugarri bereziko ondasun higiezin izango dira zerga ordenantza honen 4. artikuluan zerrendatutakoak.

4. Ondasun higiezin bat hainbat udalerritan badago, zerga honi dagokionez, udalerrri bakoitzean hartzen duen azaleraren arabera izango da batekoa eta bestekoa.

4. artikulua

1. Katastrorako ez beste ezertarako, ondasun higiezina da izaera bera eta bakarra duen partzela, baldin eta udalerrri baten barruan badago, poligono batek mugatzen badu eta poligono horrek jabe baten edo batzuen (pro indiviso) espazio eremua mugatzen badu, bai eta, halakorik bada, eremu horretako eraikuntzak ere, jabea edozein dela ere, eta higiezina dela eta titularrak dituen gainerako eskubideak gorabehera.

Honako hauek ere ondasun higiezinak dira:

a) Aprobetxamendu independentea izan dezaketen eraikinen elementu pribatiboak, jabetza horizontaleko erregimen bereziari lotuak; elkarri lotutako elementu pribatiboek osatutako multzoak, baldin eta egintza bakarrean eskuratu badira, eta, orobat, arauz ezarritako baldintzetan, trastelekuak eta aparkalekuak (jabetza indibisokoak), titular baten erabilera eta gozamen eksklusibo eta iraunkorrari atxikiak. Katastro baloraziorako ez beste ezertarako, elementu komunak arauz ezartzen den bezala gehituko zaizkie ondasun higieziari.

b) Artikulu honen 4. apartatuan jasotakoak.

c) Ondasun higiezinaren gaineko edo ondasun higiezin horiek atxikita dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio emakida baten espazio eremua, aurreko letretan xedatutako egoeretan izan ezik.

2. Honako hauek dira hiri ondasun higiezinak:

a) Hiri lurzorua. Hiri lurzoru da:

a') Hirigintza planeamenduaren arabera hiri lurzoru edo lurzoru urbanizatu edo horien baliokide direnak.

b') Lurzoru urbanizagarriak eta lurralde antolamendurako eta hirigintzako tresnen arabera urbanizatutako direnak edo urbaniza daitezkeenak, betiere mugatutako sektore edo esparruen barruan sartuta badaude, eta, orobat, mota honetako gainerako lurzoru guztiak, behin hirigintzako tresna batek haiek garatzeko xedapenak ezartzen dituenetik aurrera.

c') Nekazaritza legeetan xedatutakoaren aurka zatikatutako lurrak, baldin zatikapenak eragotzi egiten badu lurrak nekazaritzarako erabiltzea eta horrek ez badu ekartzen lurren landa izaeraren inolako aldaketarik zerga honetakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.

b) Hiri eraikuntzak:

a') Eraikinak, egiteko erabili den materiala, hartzen duten tokia eta lurzoru mota eta ematen zaion erabilera edozein delarik ere, eraikitze moduagatik guztiz eramangarriak izan arren, eta hartzen duten lurra eraikuntzaren jabearena izan ez arren; halaber, eraikin horien parekoak diren merkataritzako eta industriako instalazioak, adibidez, dikeak, andelak eta zamatzeko tokiak.

b') Urbanizazio eta hobekuntza obrak, hala nola lur berdinketak eta espazio irekiak erabiltzeko egiten diren obrak. Horien artean sartzeko dira azoka barrutiak; aire zabaleko deposituak; kirola egiteko zelai edo instalazioak; kaiak; aparkalekuak eta eraikuntzen ondoko espazioak.

c') Hurrengo apartatuan landako eraikuntza gisa berariaz kalifikatuta ez dauden gainerako eraikinak.

Ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinak dauden lurzoruak ez dira hiri lurrak.

3. Landa lurzorua da aurreko apartatuan xedatzen denaren arabera hiri lurzorua ez dena, ezaugarri bereziko ondasun higiezin batean ez badago.

Zerga honen ondorioetarako, landa ondasun higiezinak dira:

a) Hiri lurrak ez direnak, aurreko apartatuaren a) letran ezarritakoaren arabera.

b) Landa eraikinak, hau da, nekazaritzarako eraikinak edo instalazioak, landa lurretan daudenak eta ezinbestekoak direnak nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapena egiteko.

Zerga honen ondorioetarako ez dira eraikuntzat hartuko nekazaritza, abeltzaintza edo baso ustiapenean erabilitako estalgune edo estalpe txikiak, horiek eraikitze erabilitako materialak iraupen laburrekoak eta arinak izaki, erabilera hauetarako baino balio ez badute: lurra hobeto aprobetxatzeko, laboreak babesteko, eraikinik ez dagoen eremuetan abereak aldi baterako gordetzeko, edo jarduerarekin lotutako tresnak eta lanabesak gordetzeko. Era berean, zerga honetarako ez dira eraikuntzat joko landa lurretan egindako obra eta hobekuntzak, lurren balioaren zati bereiztezin izango baitira.

4. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak berariazko erabilera duen multzoa osatzen dute (lurzorua, eraikinak, instalazioak eta urbanizazio eta hobekuntza obrak). Multzoak, berez, horiek guztiak bateratzen dituzenez, eta beti batera eutsi funtzionatzeko, ondasun higiezin bakartzat jotzen da katastroaren ondorioetarako.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak joko dira, aurreko paragrafoaren arabera, talde hauetakoak:

a) Energia elektrikoa eta gasa ekoitzi eta petrolioa birfintzekoak, eta zentral nuklearrak.

b) Presak, ur jauziak eta urtegiak, horien hondoa barne; ureztaketarako bakarrik erabiltzen direnak izan ezik.

c) Bidesaridun autobide, errepide eta tunelak.

d) Merkataritzarako aireportuak eta portuak.

III. Salbuespenak

5. artikulua

1. Ondasun hauek ez daude zergaren kargapean:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal edo toki erakundeen jabetza diren ondasunak, defentsari, herritarren segurtasunari eta hezkuntza eta presondegi zerbitzuei zuzenean atxikita badaude.

Maiatzaren 10eko 7/2004 Foru Arauko bederatzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz, Arabako Bideak SA enpresak ustiatzen dituen errepideei, bideei eta lurreko gainontzeko bideei a) letra honetako salbuespena aplikatuko zaie 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera, nahiz eta ez izan doan erabiltzekoak.

b) Unibertsitate publikoen jabetzakoak, hezkuntza zerbitzuei zuzenean lotuta badaude.

c) Errepideak, bideak eta lurreko gainerako bideak, aprobetxamendu publikokoak eta doakoak badira.

d) Kuadrilla, udal, ermandade eta administrazio batzarren jabetzakoak, zerbitzu edo erabilera publikoa badute xede. Aurrean xedatzen dena ez da aplikatuko ondasunak edo hauek atxikita dauden zerbitzu publikoa administrazio kontzesio batean badaude edo zeharkako beste modu baten bitartez kudeatzen badira, kasu honetan izan ezik: titularra irabazteko xederik gabeko elkarteak bada eta aipatutako entitatearekin lankidetzak jarduerak egiten baditu, hain zuzen ere, haren organo eskudunak udal interesekotzat jo dituen lankidetzak jarduerak.

Halaber, salbuetsita daude komunitateak aprobetxatzen dituen mendiak eta gainerako ondasun higiezin guztiak, bai eta herri basoak ere.

e) Hazkunde geldoko espezieez landatutako mendiak, izan titulartasun publikokoak, izan pribatukoak.

Salbuespen hau hazkunde geldoko baso espezieei dagokie (Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren izendegiari jarraikiz), nagusiki zuretarako aprobetxatzen direnei, eta espezie horiekin landatutako baso sailei bakarrik, baldin eta zuhaitzen dentsitatea espeziearen berezkoa bada.

Orobat, aurreko paragrafoan aipatzen ez diren mendietako batzuk ere salbuespenean sartzen dira, hain zuzen ere, korporazioek, erakundeek eta partikularrek basoberritutakoak, eta Baso Administrazioak onartutako antolamendu proiektuen edo plan teknikoen arabera birsortzen ari diren zuhaitziak dauden eremuak ere bai. Paragrafo honetan ezartzen den salbuespenak hamabost urte iraungo du, eskaera aurkeztu eta ondoko zergalditik aurrera.

f) Eliza Katolikoaren ondasunak, 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz estatu espainiarrak eta Vatikanokoak sinatutako akordioan araututakoaren arabera.

g) Legeak onartutako elkarte konfesional ez katolikoaren ondasun higiezinak, Espainiako Konstituzioaren 16. artikulua aipatzen dituen lankidetzaren hitzarmenetan ezartzen denaren arabera.

h) Gurutze Gorriaren eta haren antzeko erakundearen ondasun erregelamenduz ezarritakoak.

i) Indarrean diren nazioarteko hitzarmenen ondorioz salbuespena aplikatzen zaien ondasun higiezinak, eta atzerriko gobernuenak, diplomaziako, kontsulatuak edota erakunde ofizialen ordezkarietarako erabiltzen dituztenak, elkarrekotasuna egonez gero.

j) Trenbideek okupatutako lurrak eta lur horietako eraikinak, geltoki, biltegi edo trenbide horiek ustiatzeko ezinbestekoa den beste edozein zerbitzutarako baliatzen direnak.

Ondorioz, ez dira salbuetsiko zerga ordaindu behar izatetik ez ostalaritza, ikuskizun, merkataritza eta aisialdi establezimenduak, ez enplegatuen etxebizitzarako erabiltzen diren etxeak, ez eta zuzendaritzaren bulegoak edo industria instalazioak ere.

k) Monumentu izendapena duten ondasun higiezinak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ondareari buruzko Legearen 2. artikuluan 2. apartatuko a) letran xedatutakoaren arabera (7/1990 Legea, uztailaren 3koa). Salbuespen hau inbentariatutako zein kalifikatutako kultura ondasunei aplikatuko zaie, baldin eta uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, salbuetsita daude monumentu multzo baten osagai diren ondasun higiezinak, uztailaren 3ko 7/1990 Legeak, euskal kultura ondarearenak, 2. artikuluko 2. apartatuko b) letran xedatzen duenaren arabera. Salbuespen hori soilik aplikatuko zaie higiezin kalifikatu zein inbentariatuei, uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen badituzte eta babes bereziko araubidean badaude.

Gainera, salbuetsita daude Espainiako Historia Ondareko ondasun higiezinak, Espainiako Historia Ondareari buruzko Legean aipatzen direnak (16/1985 Legea, ekainaren 25ekoa).

l) Irakaskuntzarako erabiltzen diren ondasun higiezinak, baldin eta, osorik edo zati batean, hezkuntzako itunaren pean badaude; horretarako, itunaren menpeko irakaskuntzari eskaintzen dioten azalera hartuko da kontuan.

m) Zerga biltzeko kudeaketaren eraginkortasun eta ekonomia irizpideak direla eta, salbuetsita egongo dira landa ondasun higiezinak eta hiri ondasun higiezinak baldin eta haien kuota likidoa ez bada 0,01 euro baino gehiago.

IV. Subjektu pasiboa

6. artikulua

1. Pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. apartatuan zehazten diren entitateak, eta testamentu ahalmen baten

edo usufruktu ahaltsu baten faltan gauzatzeke dauden jaraunspenak dira subjektu pasiboak, zergadunak diren neurrian, zerga egitatea den eskubide baten titularrak izanez gero.

Ondasun higiezin baten gainean kontzesiodun bat baino gehiago egonez gero, kanonik handiena ordaindu behar duena izango da zergadunaren ordezkoa.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatu egin behar da, hargatik eragotzi gabe subjektu pasiboak zerga karga beste batzuei jasanarazi ahal izatea zuzenbide erkidearen arauen arabera. Udalek zergaren kuota likido osoa jasanaraziko diete subjektu pasibo izan ez arren haren herri erabilerako edo ondareko ondasunak kontraprestazio baten trukean erabiltzen dituztenei.

Era berean, zergadunaren ordezkariak gainerako kontzesiodunei jasanarazi ahal izango die dagokien kuota zatia, bakoitzak ordaindu beharreko kanonaren arabera.

V. Zerga oinarria

7. artikulua

1. Zerga honen oinarria ondasun higiezin balioren arabera izango da.

2. Zerga oinarria zehazteko, ondasun higiezin baliotzat katastro balioa hartuko da, ondasun higiezin merkatu balioa erreferentziatzen hartuta finkatuko dena, eta inoiz ezingo dena izan merkatu balioa baino handiagoa.

8. artikulua

1. Hiri ondasun higiezin katastro balioa lurzoruaren eta eraikinen balioak osatuko dute.

2. Lurzoruaren balioa kalkulatzeko, bertan eragina izango duten hirigintza egoerak hartuko dira kontuan.

3. Eraikinen balioa kalkulatzeko, hirigintzako eta eraikuntzako baldintzak kontuan hartzeaz gain, haien izaera historiko-artistikoa, erabilera edo xedea, kalitatea eta antzintasuna hartuko dira kontuan, bai eta eragina izan dezakeen beste edozein faktore ere.

9. artikulua

1. Landa ondasunen katastro balioa lurzoruaren eta eraikinen balioak osatuko dute.

2. Landa lur balioren balioa honelaxe kalkulatu da: arautegian ezarriko den interesa zein lurren errenta erreal edo potentzialak kapitalizatuta, produkzioarako, labore desberdinetarako edo aprobetxamendurako lurra duen gaitasunaren arabera eta lur horien katastro ezaugarriekin bat etorriz.

Errentak kalkulatzeko, aintzat hartu ahal izango dira ikerketaz lortutako datuak, zona edo eskualde bakoitzeko nekazaritza ezaugarri homogeenak dituzten errentamendu edo apartzerien gainekoak.

Apartatu honen ondorioetarako, kontuan hartuko dira, halaber, landa lurretan egindako hobekuntzak – haien balioaren zati bereiztezin direnak –, eta, hala badagokio, produkzioan sartu aurretik igarotako urteak. Basogintzarako erabiltzen diren lurra izanez gero, landaketaren adina, zehazteko egoera eta aprobetxamendu zikloa hartuko dira kontuan.

Nolanahi ere, kontuan hartuko da aprobetxamendua handiagoa izateko ohiko produkzio bitartekoak erabiltzea edo aplikatzea; ez, ordea, aparteko bitartekoen aplikazioa.

Hala ere, ustiatzearen izaera edo udalerraren ezaugarriak direla eta lur balioren benetako errentak edo errenta potentzialak zenbatekoak diren jakiterik ez badago, ondasunen katastro balioa kalkulatzeko (hobekuntza iraunkorrak eta baso berriak barne) nekazaritzako faktore teknikoak eta ekonomikoak eta lur balioren gainerako inguruabarrak hartu ahal izango dira kontuan.

3. Landa eraikuntzen balioa aurreko artikuluen 3. apartatuan jasotako arauak aplikatuz kalkulatu da, eraikuntzen izaera hori ahalbidetzen duen neurrian.

10. artikulua

Ordenantza honen 7. artikulua 2. apartatua aipatzen diren katastro balioak finkatzen dira higiezin katastroetan dauden datuak oinarri hartuta. Kasuen arabera, katastro balio horiek berrikusi, aldatu edo eguneratu ahal izango dira ordenantza honen 12., 13., eta 14. artikuluetan, hurrenez hurren, xedatutakoaren arabera.

11. artikulua

Landa eta hiri ondasun higiezin katastroak dira landa eta hiri ondasun higiezin datu eta deskripzioen multzoa: azalera, kokalekua, mugak, laboreak edo aprobeixamenduak, kalitateak, balioak eta gainerako inguruabar fisiko, ekonomiko eta juridikoak. Datu horiek lurren jabetza ezagutarazten dute, eta haien alderdi eta aplikazioak definitzen dituzte.

12. artikulua

1. Katastro balioak ordenantza honen 8. eta 9. artikuluetan araututako balorazio irizpideen arabera finkatuko dira.

2. Horretarako, Arabako Foru Aldundiak hiri lurzorua mugatuko du alde aurretik, indarrean dauden hirigintzako xedapenekin bat etorritik. Dena dela, lurzoruaren izaeran aldaketarik egon ez den udalerrietan ez da beharrezko izango mugaketa berri hori egitea.

3. Hala dagokionean, aurreko apartatua aipatu diren lurzoruaren mugatze lanak egin ondoren, Arabako Foru Aldundiak dagozkien balio txostenak egingo ditu, eta bertan jasoko ditu katastro balioak finkatzeko aplikatu behar diren irizpideak, balorazio taulak eta gainerako elementuak.

4. Hiri lurzoruaren mugaketaren eta balio txostenen inguruan, Foru Aldundiak entzunaldia emango dio udalari, gehienez ere 15 eguneko epean bidezkoa deritzotena adieraz dezan.

Udalaren txostena aztertu ostean, Arabako Foru Aldundiak egoki jotzen duena ebatziko du.

5. Foru Aldundiak hiri lurzoruaren mugaketa onartu ondoren, jendaurrean erakutsiko da 15 egunetz, interesdunek egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten. Testua udal bulegoetan egongo da ikusgai, eta ALHAOn eta Arabako lurraldean zabalkunderik handiena duten egunkarietan argitaratuko da.

6. Balio txostenak, behin Arabako Foru Aldundiak onarturik, argitaratu egingo dira ALHAOn eta udalaren ediktuen bidez, noiz hasi behar duten eragin izaten txosten horietatik eratorritako katastro balioek, bada aurre-aurreko urtean.

7. Txostenak argitaratu eta gero, haien ondoriozko katastro balioen subjektu pasibo guztiei jakinaraziko zaizkie, banan-banan edo subjektu pasiboa edo baimena daukan pertsona bulegora joanik, balioek eragina sortu behar duten urtearen aurreko urtea amaitu baino lehen.

Bertratze bidezko jakinarazpena erregelamenduz arautuko da, eta jakinarazpena horrela egin behar denean, epe bat izango da jakinarazpena jasotzeko, gutxienez hamar eguneko, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera kontaktatzen hasita. Epe hori igaro eta jakinarazpena jaso ez bada, dagokion administrazio egintza jakinarazita dagoela ulertuko da ondorio guztietarako.

8. Halaxe finkatutako katastro balioak zortzi urtean behin berrikusi beharko dira.

13. artikulua

1. Katastro balioak Foru Aldundiak aldatuko ditu, ofizioz, edo udalak eskatuta, honako kasu honetan: hirigintza planeamenduak edo beste egoera batzuek erakusten dutenean desberdintasun nabarmenak daudela katastro balioen eta udalerrian edo bertako zonaren batean edo gehiagotan kokatutako ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

2. Aldaketa horrek, ezinbestean, balio txosten berriak lantzea eskatuko du, aurreko artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baina hiri lurzoruaren mugaketa berria egin beharrik gabe.

3. Txostenak landu ostean, aurreko artikuluan araututako izapideak eta prozedurak jarraituko dira.

14. artikulua

Aipatutako katastro balioak Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren foru arautan finkatzen diren koefizienteen arabera eguneratu ahal izango dira.

VI. Zerga kuota

15. artikulua

1. Zerga honen kuota osoa kalkulatzeko zerga oinarriari karga tasa aplikatu behar zaio.

Kuota likidoa kalkulatzeko legez ezarritako hobarien zenbatekoa kendu behar da kuota osotik.

2. Karga tasa eranskinean agertzen dena izango da.

VII. Hobariak

16. artikulua

1. Zerga honen kuotaren ehuneko 95eko hobaria izango dute babestutako naturguneetan dauden eta baso landaketa edo saila duten landa lurrek.

2. Urbanizazioko, eraikuntzako eta higiezinaren sustapeneko enpresen jardueraren xede diren ondasun higiezinak, obra berrikoek nahiz haren pareko diren birgaitzekoek, ehuneko 90eko hobaria izango dute, baldin eta interesatuek hala eskatzen badute obrak hasi aurretik eta haien ibilgetuan jasota ez badaude.

Hobari hau obrei ekin eta hurrengo zergalditik hasi eta obrak amaitu eta hurrengo zergaldira bitartean aplikatu ahal izango da, baldin eta aldi horretan urbanizazio edo eraikuntza obrak egiten badira. Nolanahi ere, aldi hori ezin da hiru zergaldi baino luzeagoa izan. Baldin eta interesatu batek bere lursailak urbanizatzeko obregatik hobaria aplikaturik lursail horietako higiezinaren sustapenari ekiten badio, hobaria bost zergalditan aplikatu ahal izango du.

3. Babes ofizialeko etxebizitzek eta gizarte etxebizitzek zergaren kuotan ehuneko 50eko hobaria aplikatzeko eskubidea edukiko dute behin betiko kalifikazioa eman ondoko hiru zergaldietan. Hobari hori interesdunak eskatuta emango da. Irauten duen hiru zergaldiak amaitu baino lehen aplikatu ahal izango da, noiznahi. Aplikatuz gero, eskatzen den zergaldiaren hurrengoan sortuko ditu ondorioak.

4. Nekazaritzako kooperatibek eta lurren baterako ustiapenerako kooperatibek hobaria aplikatu dezakete landa ondasunen kuotetan, ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauak, kooperatiben zerga araubideari buruzkoak, ezartzen duenarekin bat etorriz.

VIII. Sortzapena

17. artikulua

1. Sortzapena zergaldiko lehen egunean gertatuko da.

2. Zergaldia urte naturala da.

3. Zergapeko ondasunetan sortutako aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoek, aldaketa horiek gertatu ondorengo zergaldian izango dituzte ondorioak, eta horretarako ez da ezinbestekoa izango administrazio egintzak jakinaraztea.

18. artikulua

1. Zerga egitate diren eskubideen titulartasuna aldatzen bada (arrazoia edozein dela ere), eskubideen xede diren ondasun higiezinak zerga kuota osoa ordaintzeko erabili behar dira,

Zergen Foru Arau Orokorrean ezartzen den bezala. Horiek horrela, notarioek argibideak eskatuko dituzte, eta agertzen direnei berariaz jakinaraziko dizkiete, baimentzen dituzten agirietan, honako hauek: eskualdatzen den higiezinak zer zor dituen ordaintzeke ondasun higiezinaren gaineko zergan, zein epetan aurkeztu behar duten zerga horren aitortpena, ondasunek duten atxikipena zerga kuota ordaintzeko, eta, halaber, zein erantzukizun hartzen duten aitortpena aurkezten ez badute, aitortpena epez kanpo aurkezten badute, edo aitortpen faltsu, osatugabe edo zehaztugabea aurkezten badute.

2. Zerga zorraren ordaintzaren erantzule solidario izango dira, nor bere partearen arabera, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikulua 3. apartatua xedatutako erakundeetako titularkideak eta partaideak, baldin eta higiezinaren katastroan hala agertzen badira inskribatuta. Inskribatuta ez badaude, erantzukizuna hainbana eskatuko zaie.

IX. Zergaren kudeaketa

19. artikulua

Udalerriko errolda urtero egingo da zerga kudeatzeko. Bertan ondasun higiezinaren, subjektu pasiboaren eta katastroko balioen zentsuak egingo dira, landa lurren eta hiri lurren bereizita. Errolda hori udaletxean egingo da jendaurrean.

20. artikulua

1. Subjektu pasiboek honako hauek aitortu beharko dituzte udaletxean, arau ezarriko den epean, zerga honen menpe dauden ondasunak udalerrira horretan badaude:

a) Eraikuntza berrien kasuan, alta aitortpena egin beharko dute.

b) Zerga honen kargapean dagoen ondasun eskualdaketa bat gertatzen denean, eskuratzailerak alta aitortpena aurkeztu behar du eskualdaketa eragiten duen agiriarekin batera; eskualdatzailerak, berriz, baja aitortpena aurkeztu behar du, eta bertan datu hauek adierazi behar ditu: eskuratzaileraren izena eta helbidea, ondasunen mugak eta kokalekua, eskualdaketa data eta kontzeptua.

Heriotzaren ondoriozko eskualdaketa egiten bada, epea hasiko da oinordetzen gaineko zerga likidatzen den egunean, eta oinordekoak alta eta baja aitortpenak aurkeztu beharko ditu.

c) Zergapeko ondasunei dagozkien aldaketa guztiak, kausa fisiko, ekonomiko zein juridikoak direla medio sortuak.

Apartatu honetan zerrendatutako aitortpenak ez aurkeztea edo epe barruan ez egitea zerga arau-haustea izango da.

21. artikulua

Administrazio egintzat joko dira eta zergaren errolda aldatzea ekarriko dute higiezinaren katastroetan datuak sartu, kendu edo aldatzeak, hauen ondorioz eginak: katastro berrikuspenak, katastro balioak finkatu, berrikusi eta aldatzeko jarduerak, ikuskapenak edo alta eta jakinarazpen formalizatzeak. Erroldan aldaketaren bat egin ahal izateko, higiezinaren katastroetan dauden datuekin lotuta badago, aldaketa bera egin beharko da higiezinaren katastroetan, nahitaez eta alde zuzenetik.

22. artikulua

1. Udalak du zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmena, borondatezko epealdian zein premiamendu aldian, baldin eta zergapeko ondasunak bere udalerrira badaude, baina hori ez da eragozpen izango 3. apartatua ezarritakoa betetzeko.

2. Hain zuzen ere, Udalaren egitekoak dira altak eta bajak izapidetzea eta likidatzea, erroldak jendaurrean jartzea, errekurtsioak eta erreklamazioak ebatzea, zerga kobratzea, salbuespenak

eta hobariak aplikatzea, eta zergadunei laguntza eta informazioa ematea zerga honen inguruko gaiez.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ordenantza honetan arautzen diren salbuespenak eta hobariak ematen edo ukatzen direnean, udal eskudunak ematen duen ebazpena Foru Aldundiari helarazi beharko zaio.

3. Foru Aldundiari ez besteri dagokio lurzorua mugaketak eta balio txostenak egitea eta onartzea, baita mugaketa horiek eta katastro balioak finkatzea, berrikustea eta aldatzea ere; era berean, katastroei eta zerga erroldari dagozkien prestakuntza, berrikuspina, zaintza eta gainerako funtzioak ere berari dagozkio.

Udalak katastroa prestatzen eta zaintzen lagunduko dio Foru Aldundiari.

Era berean, Foru Aldundiari dagokio kobrantzako ordainagiriak egitea. Udalak hobari pertsonalak ezartzen baditu –hain zuzen ere, 42/1989 Foru Arauaren 15. artikulua 7. eta 9. apartatuen aipatzen direnak, bai eta aipatutako foru arauaren 14. artikuluko 4. eta 5. apartatuetan aurreikusitako kasuetan ere–, berak egingo ditu dagozkion ordainagiriak. Era berean, Foru Aldundiari dagokio zergaren katastro ikuskaritza.

23. artikulua

Balio txostenak onartzeko egintzen eta katastro balioen kontra zerga ordenantza honen 12. eta 13. artikuluetan xedatutakoaren arabera aurkeztzen diren errekursoak eta erreklamazioak ebatziko dira zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 229. artikulutik 246.era xedatutakoaren arabera, eta berraztertze errekursoak ebatzeko eskumena Arabako Foru Aldundiarena izango da. Horrelako errekurso edo erreklamazioa jarrita ere egintzaren betearazpena ez da etengo.

24. artikulua

1. Arabako Foru Aldundiak egingo du errolda, eta udalari bidaliko dio.

2. Udalak errolda jaso eta gero, jendaurrean jarriko du 15 egunez, zergadunek azter dezaten, eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

3. Udalak, epe hori hasi baino bi egun lehenago, gutxienez, udalerriko administrazio batzarretako lehendakariari jakinaraziko die noiz hasiko den jendaurrean jarrita edukitze epea, haiek, ohiko bitartekoen bidez, herritarrak jakinaren gainean jar ditzaten.

25. artikulua

1. Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan eta erreklamazioak ebatzi ostean, Foru Aldundiari bidaliko zaio emaitzaren egiaztatzea, hark onar dezan.

2. Hura onarturik, Arabako Foru Aldundiak dagozkion ordainagiriak prestatuko ditu, eta udalei bidaliko dizkie, zerga bilketari ekin diezaioten.

Xedapen gehigarria

5 f) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako eta estatu espainiarrak eta Vatikanoko 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoari buruz egindako akordioak indarrean dirauen bitartean, ondusun hauek salbuetsita egongo dira:

a) Kultuleku modura erabiltzen diren tenpluak eta kaperak, eta haien bulegoak eta jarduera pastoralerako erabiltzen diren eraikin erantsiak ere bai.

b) Gotzainen, kalonjeen eta parrokiaren ardura duten apaizen egoitzak.

c) Bulegoetarako, kuria diozesiarrerako eta parrokia bulegoetarako erabilitako lokalak.

d) Elizbarrutiko kleroaren eta erlijiosoaren prestakuntzarako apaiztegiak eta elizaren unibertsitateak, elizaren berezko gaiak irakasten dituzten heinean.

e) Beren helburu nagusia ordenetako, erlijiosoen kongregazioetako eta biziera sakratuko institutu etxe edo komentu izatea duten eraikinak.

Xedapen iragankorrak

Lehenengoa

42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duenak, xedapen gehigarrietan ezarritako arauak udalerrri honetan aplikatuko dira, haiek eragiten dioten heinean.

Bigarrena

Martxoaren 31ko 12/2003 Foru Araua, toki ogasunak aldatzen dituena, indarrean jartzeko garaian, ondasun higiezin gaineko zergan, aitortuta zeuden zenbait onura fiskal eta horiez gozatzeko baldintzak; horiek indarrean jarraituko dute eta, eskatu beharrekoak izanez gero, ez da beharrezkoa izango eskaera egitea. Aipatutako zergan onartuta dauden zerga hobariei iraugi arte eutsiko zaie, nahiz eta zerga ordenantza honetan jaso ez. Dena den, kanpoan geratuko da Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 4. artikularen k) apartatua aurreikusitako salbuespena, baldin eta 12/2003 Foru Arauaren aurreko idazketa hartzen bada aintzat, zeren eta azken hori indarrean sartzean aurrekoa indargabetu egin baitzen.

Azken xedapena

Higiezin gaineko zergari buruzko udal ordenantza arautzaile hau, zeinaren zati baiten jarraian doan eranskina, indarrean sartuko da behin betiko testu osoa ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean egongo da espresuki aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duen ordenantza

Eranskina

Tarifa

Hiri ondasunak: ehuneko 0,30

Landa ondasunak: ehuneko 0,40

Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak:

Zerga biltzeko epea: zerga hau urteko 4. hiruhilekoan bilduko da.

ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauan eta zerga honi buruzko uztailaren 19ko 45/1989 Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ezarri eta eskatuko du udalak ordenantza honen arabera. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

Zerga egitatea da edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, horretarako beharrezkoa bada obra edo hirigintza baimena, baimena lortu edo ez, edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea edo alde zuzenetik jakinaraztea, baldin eta baimena ematea edo kontrol jarduera egitea udalari badagokio.

4. artikulua

Besteak beste, hauengatik ordaindu behar da zerga:

1. Oin berriko edozein eraikin edo instalazio egiteko obrak.
2. Lehendik dagoen edozein eraikin edo instalazio handitzeko obrak.
3. Lehendik dagoen edozein eraikin eta instalaziori eragiten dioten eraberritze edo aldaketa obrak.
4. Lehendik dagoen edozein eraikinen eta instalazioaren kanpoko itxura aldatzeko obrak.
5. Eraikinen barruko antolaketa aldatzeko obrak, erabilera edozein dela ere.
6. Lurzoruaren Legearen testu bateginekoko 58. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren eta behin-behinean egitekoak diren obrak.
7. Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.
8. Lur mugimenduk; esaterako, lur erauzketak, indusketak eta lubakiak, baldin eta egintza horiek ez badaude zehaztuta eta programatuta baimendu edo onartutako urbanizazio edo eraikuntza proiektu batean egin beharreko obra gisa.
9. Eraikuntzen eraispena, berehalako aurriaren adierazpena egin zaienetan izan ezik. 10. Aparkalekuetarako, industria edo merkataritza jardueretarako, jarduera profesionaletarako eta zerbitzu publikoetarako erabiltzen diren lur azpiko instalazioak, edo lurpeari eman nahi zaion beste edozein erabilera.
11. Bide publikotik ikus daitezkeen propaganda kartelak ipintzea.
12. Edozein obra, eraikuntza eta instalazio, ahalmen ekonomikoaren erakusgarri diren baliabide ekonomikoen inbertsioa ekarriko dutenak eta obra edo hirigintza baimena lortu beharra dutenak.

5. artikulua

Ez zaie zerga hau ezarriko higiezinenetan egindako eraikuntza, obra eta instalazioei, haien jabari titulartasuna udalarena bada, eta udala bera bada obren jabea.

III. Salbuespenak

6. artikulua

Zergatik salbuetsita daude:

- a) Estatuaren, autonomia erkidegoen, lurralde historikoen edo toki erakundeen jabetzako eraikuntza, instalazio eta obrak, zergapekoak izan arren, baldin eta helburua errepideak, trenbideak, aireportuak edo obra hidraulikoak egitea edo herrien saneamendua eta haiek sortzen dituzten hondakin uren arazketa bada, nahiz eta erakunde autonomoek kudeatu, bai inbertsio berriko obrak, bai zaintze obrak.
- b) Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuen jabegoko edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, zeinaren xedea zerbitzu edo erabilera publikoa baiten.

c) Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 4. artikuluko 1. apartatuan k) letraz adierazitako salbuespena aplikatu behar zaien ondasunetan (Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikuluko 2. apartatuan a) letraz adierazitako monumentuak diren ondasunak) egiten den edozein eraikuntza, instalazio edo obra.

d) Ureztatzeko sistema jartzeko egiten diren eraikuntzak, instalazioak eta obrak, baldin eta Arabako Foru Aldundiak onartutako ureztaketa planaren barruan badaude. Salbuespen hau ureztatzeko sistema ezartzeko zein zaintzeko eraikuntza, instalazio eta obrei aplikatuko zaie.

IV. Subjektu pasiboak

7. artikulua

1. Pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. apartatuan zehazten diren entitateak, eta testamentu ahalmen baten edo usufuktu ahaltsu baten faltan gauzatzeke dauden jaraunspenak dira subjektu pasiboak, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabeak badira, horiek egiten diren eraikinaren jabe izan ala ez.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabea haren gastuak edo kostuak jasaten dituena da.

2. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, bere ordeko subjektu pasibotzat joko da eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko baimena eskatzen duena edo erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiazko berriematea aurkezten duena edo eraikuntza, instalazioa edo obra egiten duena.

Ordezko subjektu pasiboak ordaindutako zerga kuota eskatu ahal izango dio zergadunari.

V. Zerga oinarria

8. artikulua

Zergaren oinarria da eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu erreal eta benetakoa, eta halakotzat hartzen da, ondorio horietarako, gauzatze materialaren kostua.

Ez dira zerga oinarrian sartzen balio erantsiaren gaineko zerga; araubide berezietako be-rezko antzeko beste zerga batzuk; eraikuntza, instalazio edo obra horiekin loturiko tasak, prezio publikoak eta ondare prestazioak, publikoak eta tokian tokikoak badira; ez eta profesionalen soldadak, kontratistaren enpresa etekinak, eta, zorrotz hartuta, gauzatze materialaren kostuan sartzen ez diren gainerako kontzeptuak ere.

VI. Zerga kuota

9. artikulua

Zerga honen kuota ateratzen da zerga oinarriari eranskinean zehaztutako karga tasa aplikatuz.

VII. Sortzapena

10. artikulua.

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazioa edo obra hasten denean gertatuko da, nahiz eta baimena eskuratu gabe eduki

VIII. Kudeaketa

11. artikulua

Aginduzko lizentzia ematen bada edo erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiazko jakin-arazpena aurkezten bada, edo nahiz eta lizentzia eskatu, eman edo ukatu ez edo aitorpena edo

berriematea aurkeztu ez, eraikuntzari, instalazioari edo obrari ekiten bazaio, konturako behin-behineko likidazioa egingo da, eta horretarako honela kalkulatu da zerga oinarria:

a) Interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, baldin eta elkargo ofizial eskudunak ikus-onetsi badu, ikus-onespen hori nahitaezko betekizuna denean.

b) Bestela, zerga oinarria udal teknikariek kalkulatu dute eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu estimatuaren arabera.

12. artikulua

Behin baimena emanda hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da, behin-behineko beste likidazio bat egitearren, hasierako aurrekontuari gehitu zaion zenbatekoaren arabera.

13. artikulua

1. Benetan egindako eraikuntza, instalazio edo obrak ikusita, eta horien kostu errealak eta benetakoa kontuan hartuta, udalak dagokion egiaztapena egingo du, eta, beharrezkoa bada, zerga oinarria aldatuko du, behin betiko likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari dagokion zenbatekoa eskatu, edo, hala badagokio, itzuli egingo dio.

1. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, obra amaitu edo obraren behin-behineko onarpena eman eta hurrengo hilean, horren aitortzea aurkeztu beharko da udal administrazioak emandako inprimakian. Horrekin batera, obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria aurkeztuko da, dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia, ahal denean; bertan, obraren kostu osoa ziurtatuko da, proiektuaren eta zuzendaritzaren eskubide fakultatiboak, industria onura eta hortik sortutako gainerako eskubideak barne.

14. artikulua

Zergaren likidaziorako, ondorio berak edukiko dituzte administrazio isiltasun positiboaren bidez ematen diren baimenek eta berariaz ematen direnek.

15. artikulua

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

16. artikulua

Baimen baten titularrak baimendutako obra, eraikuntza edo instalazioa egiteko asmoa bertan behera uzten badu eta hori idatzizko uko egitearen bitartez adierazten badu, udalak egindako behin-behineko likidazioa itzuli edo guztiz baliogabetuko du.

17. artikulua

Baimena iraungitakoan, egindako likidazioa itzuli edo baliogabetu egingo du udalak, salbu eta titularrak hura berritzeko eskatu, eta udalak baimena ematen badio.

Azken xedapena

Ordenantza hau eta bere eranskina behin betiko onartu ziren eranskinean adierazten den datan, eta indarrean jarraituko dute harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Eraikuntzen, instalazioen eta obraren gaineko zergari buruzko udal ordenantza arautzaile hau, zeinaren zati baiten jarraian doan eranskina, indarrean sartuko da behin betiko testu osoa ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean egongo da espresuki aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza**Eranskina**

Tarifa

Eraikuntzaren, instalazioaren eta obraren karga tasa (portzentajea): 2,5

**UDALAREN ZERGA ORDENANTZA, HIRI LURREN BALIO
GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA****I. Xedapen orokorrak****1. artikulua**

Urizarharreko Udalak, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituenak, 19.2.b) artikuluan eta uztailaren 19ko 46/1989 Foru Arauak ezarritakoarekin bat etorritik, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga ezarri eta eskatzen du, ordenantza honen arabera.

Tributu hori zuzeneko zerga bat da.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga egitatea**3. artikulua**

1. Zerga honen egitatea da hiri lurrek izan dezaketen balio gehikuntza, zeina agerian jartzen baita edozein tituluren bidez haien jabetza eskualdatzen bada edo haien gaineko edozein gozamen-eskubide erreal eratu edo eskualdatzen bada, eta horrek jabaria mugatzen badu.

2. Ez da zerga honi lotuta egongo ondasun higiezinaren gaineko zergaren ondorioetarako landa lurtzat hartzen diren lurren balio gehikuntza.

3. Honako hauek ez dira zergaren pean egongo: ezkontideek ezkontza sozietateari egindako ondasun eta eskubide ekarpenak, hauen ordainetan beraien alde egiten diren esleipenak, eta ezkontideei beren ondasun komunaren ordainetan egiten zaizkien eskualdaketak.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren kasu berberetan, xedapen bera aplikatuko zaie Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpenak, esleipenak eta eskualdaketei.

Honako hauek ere ez daude zergaren kargapean: ezkontza baliogabetzea, banaketa edo dibortzioa gertatzekotan edo izatezko bikotea amaitzekotan epaiak betetzearen ondorioz ezkontideen artean eta Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteko kideen artean gertatzen diren ondasun higiezinaren eskualdaketak, eta seme-alaben alde egiten direnak, ezkontzaren araubide ekonomikoa edo ondare araubide ekonomikoa gorabehera, hurrenez hurren.

4. Zergapekoa izango da ondasun higiezinaren gaineko zergaren ondorioetarako, ezaugarri bereziko ondasun gisa sailkatutako ondasun higiezinetara bildutako lurren balioa gehitzea.

III. Salbuespenak eta hobariak**4. artikulua. Salbuespenak**

1. Zerga honetatik salbuetsita egongo dira egintza hauen ondorioz agerian gertatzen diren balio gehikuntzak:

a) Zortasun eskubideak eratzea eta eskualdatzea.

b) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauko 4. artikuluko 1. apartatuko k) letrako salbuespena aplikatu ahal zaien ondasunen eskualdaketak, jabeek edo eskubide errealeko titularrek frogatzen badute ondasun higiezin horiek zaintzeko, hobetzeko edo birgaitzeko lanak beren kargura egin dituztela.

2. Era berean, zerga honetatik salbuetsita egongo dira balio gehikuntzak, zerga ordaintzeko egin beharra honako pertsona edo erakunde hauei badagokie:

a) Estatuak, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia, Estatuaren organismo autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko erakundeak.

Zerga kobratzen duen udalerrria eta udalerrri horrek osatzen dituen edo haren osakide diren gainerako udal entitateak, bai eta haien zuzenbide publikoko entitateak ere, Estatuaren erakunde autonomoen pareko izaera dutenak.

b) Ongintzako edo ongintza-irakaskuntzako erakundeak.

c) Gizarte Segurantza, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten erakundeak, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik eratutakoak.

d) Administrazio emakiden titullarrak, baldin eta emakida horiek eragindako lursailak berriro aplikatzea badago.

e) Gurutze Gorria eta arauz zehazten diren antzeko beste entitate batzuk.

f) Nazioarteko hitzarmen edo itunetan zerga honen salbuespena onartuta duten pertsonak eta erakundeak.

5. artikulua. Hobariak

Heriotza dela kausa eta kosturik gabe lurra eskualdatzen badira edo gozamen eskubide errealek eskualdatu edo erabiltzen badira, eta horiek jabaria mugatzen badute, zerga kuota ehuneko 90eko hobaria aplikatuko da hauen alde: ondorengoak, adoptatuak, ezkontideak, edo izatezko bikotekideak –izatezko bikoteak Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera erabiltzea egon behar dute–, aurrekoak eta adoptatzaileak.

IV. Subjektu pasiboak

6. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa:

a) Lurren eskualdaketetan edo jabariko irabazizko gozamen mugatzaileen eskubide errealeko osaketan edo eskualdaketan, pertsona fisikoak eta juridikoak eta urriaren 28ko 6/2005 Foru Arauko Arabako Zergari buruzkoak, bere 35. artikuluan 3. apartatuan aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea edo gozamen ahalordua erabili gabe duten herentziak, baldin eta lurra eskuratu edo eskubide erreala horien alde osatzen edo eskualdatzen bada.

b) Lurren eskualdaketetan edo jabariko kostu bidezko gozamen mugatzaileen eskubide errealeko osaketan edo eskualdaketan, pertsona fisikoak eta juridikoak eta otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauko Arabako Zergari buruzkoak, bere 35. artikuluan 3. idatz zatian aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea edo gozamen ahalordua erabili gabe duten herentziak, baldin eta lurra besterentzen badute, edo eskubide erreala osatzen edo besterentzen badute.

2. Aurreko apartatuko b) letrak aipatzen dituen kasuetan, honako hauek hartuko dira zergadunaren subjektu pasibotzat: pertsona fisikoa, juridikoa eta otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauko Arabako Zergari buruzkoak, bere 35. artikuluan 3. apartatuan aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea edo gozamen ahalordua erabili gabe duten herentziak, baldin eta lurra eskuratu edo eskubide erreala haren alde osatzen edo eskualdatzen bada, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisikoa denean.

3. Hipoteka zordunaren edo bere bermatzailearen ohiko etxebizitza kreditu entitate baten alde edo profesional moduan hipoteka kreditu edo maileguak emateko jarduera egiten duen edozein entitateren alde ordainetan ematearen edo epaileak nahiz notarioak hipoteka betearaztearen ondorio diren eskualdaketetan, higiezia eskuratzen duen entitatea hartuko zergadunaren ordezkotzat, eta ordezkotzat ezin diezaiokete eskatu betetako zerga egin beharren zenbatekoa zergadunari.

Apartatu honen ondorioetarako, berdin tratatuko dira hipoteka zordunaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean ematean, zordunaren ohiko etxebizitza erosteko zorren bermerako abal-emaile izaerarekin egiten bada.

Apartatu honetan aurreikusitako ondorioak sor daitezzen, beharrezkoa da zordun edo bermatzaile eskualdatzaileak, abal-emaileak edo bere familia unitateko beste edozein kidek ez edukitzea hipoteka zor osoa estali ahal izateko adinako beste ondasun edo eskubiderik, etxea besterentzea ekidin litekeen unean. Betekizun hori betetzen dela joko da.

Apartatu honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzat hartuko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauak 87. artikuluko 8. idatz zatian jasotakoa.

Familia unitatetzat hartuko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 98. artikuluan definitzen dena. Ondorio horietarako, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legeari jarraituz eraturitako izateko bikoteak ezkontzaren izaera bera izango du.

V. Zerga oinarria eta kuota

7. artikulua. Zerga oinarria

1. Zerga honen oinarria lurren balioaren gehikuntza da, sortzapenarekin batera azaltzen dena, eta gehienez hogeitun urtean metatutakoa.

Zerga oinarria kalkulatzeko lursailak sortzapen egunean duen balioa hartu behar da kontuan, artikuluko honetako 2. eta 3. apartatuetan eta 8. artikuluan jasorikoaren arabera egokitzen den urteko ehunekoarekin bat etorritik.

2. Lurrek sortzapen unean duten balioa kalkulatzeko erregela hauek aplikatuko dira:

a) Lurren eskualdaketetan, lur horiek sortzapen egunean duten balioa une horretantxe ondasun higiezinaren gaineko zergarako ezarritako dagoen berbera izango da.

Hala ere, babes publikoko etxebizitzaren araubidean dauden higiezinaren lurren balioa kalkulatzeko 0,2ko koefizientea aplikatuko zaio salmenta prezioari.

b) Jabetza mugatzen duten gozamen eskubide errealak eratzean eta eskualdatzean, 8. artikuluan jasoriko urteko ehunekoak aurreko letran zehaztutako balioaren zatiari aplikatuko zaizkio. Zati hori aipatutako eskubideen balioaren adinekora izango da eta balio horren zenbatekoa ondare eskualdaketetan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarako ezarritako arauak aplikatuz zehaztuko da.

c) Eraikin edo lursail baten gainetik oin bat edo gehiago jasotzeko, edo lur azpitik eraikitzearen eskubidearen sorreran eta eskualdaketetan —lurrazal eskubide erreal bat izan gabe ere—, 8. artikuluan ezarritako urteko ehunekoak aplikatuko dira, hain zuzen ere, aurreko a) letran zehaztutako balioaren partearen gainean, horixe baita eskualdaketaren eskrituran ezarritako proportzionaltasun moduluaren adinakoa, eta hori ezina bada, gorantz edo lur azpian eraikitzearen diren oinen zabaleraren edo bolumenaren eta eraikitako zabalera osoaren edo bolumenaren arteko ehunekoak zehaztu ondoren aterako dena, oinak eraiki ondoren.

d) Nahitaezko desjabetzeetan, artikuluko honetako 4. apartatuan jasoriko urteko ehunekoak lurren balioespenaren zatiari aplikatuko zaizkio, salbu eta idatz zati honetako a) letran zehaztutako balioa txikiagoa bada, kasu horretan balio hori hartuko baita ontzat eta ez balioespenaren zatia.

3. Balorazio kolektiboaren ondorioz katastroko balioa aldatzen denean, katastroko balio berriei ehuneko 50 aplikatzearen ondoren gelditzen den zenbatekoa hartuko da luraren edo aurreko apartatuan jasoriko arauen arabera egokitzen den luraren zatiaren baliotzat.

Katastroko balio berriek eragite indarra duten lehenengo bost urteetako bakoitzerako aplikatuko da murrizketa hori.

Idatz zati honetan aurreikusitako murrizketa ez da aplikatuko bertan aipatutako balorazio kolektibotik ateratzen diren katastro balioak txikiagoak badira ordura arte indarrean egon direnak baino.

Katastro balio murriztua ezingo da inola ere izan lurak balorazio kolektiboa egin aurretik zuen katastro balioa baino txikiagoa.

8. artikulua

Lurraren balioaren gainean aplikatu beharreko urteko ehunekoa

Sortzapen unean lurak duen balioari, 7. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoak eraginda, udal bakoitzak zehazten duen urteko ehunekoa aplikatuko zaio, eta hark ezin izango ditu gainditu muga hauek:

- a) Urte batetik bost urtera bitarteko aldia: 2,7.
- b) Hamar urtera arteko aldia: 2,5.
- c) Hamabost urtera arteko aldia: 2,2.
- d) Hogei urtera arteko aldia: 2.

Ehunekoa zehazteko arau hauek aplikatuko dira:

1. Zergak kargatutako eragiketa bakoitzaren balio gehikuntza zehazteko kontuan hartuko da gehikuntza hori gertatu den urteetarako ezarritako urteko ehunekoa.

2. Sortzapen unean luraren balioaren gainean aplikatu beharreko ehunekoa hauxe da: kasu bakoitzean aplikatu beharreko urteko ehunekoa bider balio gehikuntza gertatu den urte kopurua.

3. Eragiketa bakoitzari aplikatu beharreko urteko ehunekoa lehenengo araua betez zehazteko, eta bigarren araua betez urteko ehuneko hori zenbat bider (urteak) biderkatu behar den zehazteko, balioaren gehikuntza azaldu behar den aldiko urte osoak hartuko dira kontuan, eta ez urte zatiak.

9. artikulua. Kuota osoa

Zergaren kuota osoa izango da zerga oinarriari karga tasa aplikatuta ateratzen dena, eta tasa honako hau izango da:

ALDIA	KARGA TASA
1 - 5 urte	ehuneko 15
10 urtera arte	ehuneko 15
15 urtera arte	ehuneko 15
20 urtera arte	ehuneko 15

10. artikulua. Kuota likidoa

Zergaren kuota likidoa, kuota osoari 5. artikuluan aipatzen den hobaria aplikatuta, hala badagokio, ateratzen den emaitza izango da.

VI. Zergaren sortzapena

11. artikulua

1. Zerga sortzen da:

a) Eskualdaketa egunean, lurraren jabetza bizien artean edo norbaiten heriotzaren kausaz eskualdatzen bada, kostu bidez nahiz doan.

b) Jabaria mugatzen duen edozein gozamen eskubide erreal eratu edo eskualdatzen bada, eratzeta edo eskualdaketa gertatzen den egunean.

2. Lursaila eskualdatzea edo gozamen eskubide erreala eratu edo eskualdatzea ahalbidetu duen egintza edo kontratua auzitegiek edo administrazioek xedapen irmoz baliogabetu, deuseztatu edo bukarazten badute, subjektu pasiboak ordaindutako zergaren zenbatekoa berreskuratu ahal izango du, baldin eta egintza edo kontratu horrek irabazirik ekarri ez badio eta xedapen irmoa eman zenetik bost urteko epean egiten badu diru hori itzultzeko eskaera; justifikatzen ez bada interesdunek elkarri Kode Zibilaren 1.295. artikuluan aipatutako itzulketak egin behar dizkiotela, kostu ondorioa badagoela ulertuko da. Egintzak edo kontratuak irabazte ondorioz izan ez arren, hutsalketa edo suntsiarazpena zergaren subjektu pasiboak betebeharrak bete ez dituelako adierazten bada, ez da inolako itzulketarik egin beharko.

3. Kontratuaren bi aldeek hala hitzartu izanagatik geratzen bada ondorioz gabe kontratua, ez da itzuliko ordaindutako zerga, eta zergapean dagoen egintza berritatzat joko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetze ekitaldiko abenikoa bai demandari amore ematea.

4. Tartean baldintzaren bat dagoen egintza edo kontratuetan, Kode Zibilean jasotako agin-duen arabera egingo da kalifikazioa. Baldintza etengarria bada, zerga ez da likidatuko baldintza bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, zerga eskatu egingo da, baina, baldintza betetzen deanean, dirua itzuli egingo da, aurreko puntuko arauak dioenari jarraikiz.

Testamentu ahalaren bidez emandako jaraunspenetan, ahala guztiz erabilitakoan edo ahala iraungitzeko gainerako kausaren bat gertatzean sortuko da zerga.

5. Testamentua egiteko ahalmenean zerga honen menpe dauden jaraunspen ondasunak gozamenean emateko eskubidea norbaiti ematen bazaio, gozamen horren likidazio bikoitza egingo da, ahalmen horretaz baliatzen ez den bitartean: behin-behineko likidazio bat, ondorengotza zabaltzean sortuko dena, biziarteko gozamenaren arauari jarraituz, eta behin betiko beste bat, testamentu ahala erabiltzean, aldi baterako gozamenaren arauari jarraituz, kausatzailea hil zenez geroztik igaro den denborarengatik; behin-behineko likidazioan ordaindutakoa konturako sarreratzat joko da, eta bien arteko aldea gozamenaren itzuliko zaio, haren aldekoa ateratzen bada. Aldi baterako gozamenarengatik egiten den behin betiko likidazio hori jaraunspenarekin batera egingo da, jaraunspen horiek testamentu ahalarengatik edo hura amaitzeagatik baldin badira jaraunspenak.

VII. Zergaren kudeaketa

12. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Subjektu pasiboek zerga aitortzea aurkeztu beharko diote Urizaharreko Udalarari, udalak berak emandako eredu ofizialari jarraituz, eta bertan zerga harremanaren elementuak eta likidazioa egiteko beharrezko eta ezinbesteko diren gainerako datu guztiak jaso beharko dira.

2. Aitorpenarekin batera, subjektu pasiboek ondorengo agiri hauek aurkeztuko dituzte:

a. Eskualdatzaileen eta eskuratzzaileen nortasun agiri nazionala edo identifikazio fiskaleko zenbakia.

b. Ezarpena eragin duten egintzak edo kontratuak jasotzen dituen agiriaren kopia autentifikatua.

c. Eskualdatzen diren higiezinaren katastroko erreferentzien ziurtagiria.

3. Eskatutako salbuespenak edo hobariak egoki justifikatu beharko dira agiri bidez.

4. Urizaharreko Udalak errekerimendua egin diezaieke interesdunei aurkezten dituen beste agiri batzuk, hogeita hamar eguneko epean, zeina beste hamabost eguneko luza daitekeen interesdunak hala eskatuz gero; egindako errekerimenduari epe horren barruan erantzuten ez dietenek, dagozkien arau-hauste eta zerga zehapenak izango dituzte, agiri horiek beharrezkoak liratekeen heinean aitortuta egiaztatuko.

Adierazi diren agiri horiek interesdunak bere onurarako bakarrik alegaturiko gorabeherak egiaztatuko bitarteko hutsak izanez gero, errekerimenduari ez erantzuteak ekarriko du likidazioa egitea alegatu bai baina justifikatu gabeko inguruabarrak kontuan hartu gabe.

5. Urizaharreko Udalak jakiten badu zerga gaiak ez direla aitortu 13. artikuluan ezarritako epean, interesdunei errekerimendua egingo die aitortuta aurkezteko, zergen arloko arau-hausteak eta, hala badagokio, zehapenak alde batera utzi gabe.

Udal administrazioak aipatutako errekerimenduak eginez gero ere, interesdunek dagozkien aitortuta aurkezten ez badute, ofiziozko espedientea bideratuko da, eskueran dauden datuez baliatuz, eta dagozkien likidazioa egingo da, ordaintzeko epeak eta bidezko errekurtsioak adierazita, hala badagokio; gainera, zerga alorreko arau hausterik balego eta bidezkoa balitz, dagozkion zehapenak ezarriko lirateke.

6. Artikulu honetako 1. apartatuan xedatutakoa gorabehera, jarraian adieraziko direnek udalari zerga gaiaren berri jakinarazi beharko diote subjektu pasiboak ezarritako epealdi beretan:

a. Ordenantza honetako 6. artikuluko a) letran adierazitako kasuak bizien arteko negozio juridikoen ondorioz gertatzen direnean, dohaintza emaileak edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen duenak.

b. Artikulu horretako b) letrako kasuetan, eskuratzailak edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen zaionak.

13. artikulua. Aurkezteko epeak

Aurreko artikuluan jasoriko aitortuta eta agiriak Urizaharreko Udalean aurkeztu beharko dira ondoren adieraziko diren epeetan, zergaren sortzapenaren egunetik aurrera:

a) Inter vivos egintzak direnean, epea hogeita hamar egun baliodunekoa izango da.

b) Heriotzaren kausazko egintzak direnean, epea sei hilabetekoa izango da, urtebetara ere luza daitekeena subjektu pasiboak hala eskatzen badu. 14. artikulua. Notarioek egin beharrezkoak.

1. Notarioak behartuta daude Urizaharreko Udalari bidaltzera, hiru hilabete natural bakoitzaren lehenengo hamabostaldian, aurreko hiru hilabete naturalean egiletsi dituzten agiri guztien zerrenda –betiere esku hartzaileen izena eta abizenak, nortasun agiri nazionalaren zenbakia eta helbideak jasoko ditu– baldin eta haietan ageri badira zerga honen egitatea gauzatu dela agerian uzten duten egitate, egintza edo negozio juridikoak, salbu azken nahietako egintzak. Orobat, epe horretan berorretan igorri beharko dute egitate, egintza edo negozio juridiko horiek jasota ageri diren dokumentu pribatuaren zerrenda ere, sinadurak aintzatesteko edo legeztatzeko aurkeztu zaizkien dokumentuen zerrenda, alegia. Apartatu honetan ezarritakoak ez du eragozten Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritako lankidetzazko betebeharrak orokorra.

2. Notarioek Udalari igorritako zerrendan edo aurkibidean, ondasun higiezinaren katastroko erreferentzia adierazi behar dute, erreferentzia hori bat datorrenean eskualdatu nahi direnekin.

3. Notarioek, baimentzeko agerietan, berariaz ohartarazi beharko dizkiete bertaratuei interesdunek zergaren aitortuta aurkezteko duten epea eta aitortuta ez aurkezteagatik dituzten erantzukizunak.

15. artikulua. Zerga arau-haustek eta zehapenak

7. Zergen arloko arau haustek Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoaren arabera kalifikatzen eta zehatzen dira.

VIII. Xedapen gehigarria

7.2.b) artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta Ondarezko Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga onartzen duen Foru Araua indarrean dagoen bitartean, honako hauek bete beharko dira:

1. a) Aldi baterako gozamenaren balioa, ondasunen balioen proportzionaltzat joko da, urtean ehuneko 2, gehienez ehuneko 70.

1.a) Bizarteko gozamenen balioa ondasunen balio osoaren ehuneko 70ekoa dela joko da, gozamendunak 20 urte baino gutxiago baditu. Zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta txikiago izango da balioa; hain zuzen ere, ehuneko 1 gutxiago urte bakoitzeko. Muga, betiere, balio osoaren ehuneko 10ekoa izango da.

1.b) Beste pertsona juridiko baten alde ezarritako gozamena 30 urte baino gehiagorako edo aldi mugagabe baterako ezartzen bada, gozamen hori baldintza suntsiarazlearen menpe dagoen jabetza osoko eskualdaketatzat joko da zerga ordainketarako.

2. Jabetza soilaren eskubidearen balioa izango da gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren arteko aldea. Aldi baterakoak diren bizitza osorako gozamenetan jabetza soila kalkulatu da aplikatuz lehenengo puntuko arauetatik balio gutxien ematen diona.

3. Erabiltzeko eta bertan bizitzeko ondasunen gaineko eskubide errealeen balioa kalkulatzeko, aldi baterako gozamenaren baloraziorako erregelak edo bizitza osorako gozamenaren baloraziorakoak, kasuan kasukoak, aplikatu ostean ondasunen balioari ehuneko 75 aplikatuko zaio.

IX. Azken xedapena

Udalaren ordenantza hau, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duena, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala egongo da aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**I. Xedapen orokorrak****1. artikulua**

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauan (44/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa) eta tributu honi buruzko foru arauan ezarritakoarekin bat etorriz, ordenantza honen arabera eskatzen du trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, zeinaren zati baita aplikatzekoak diren tarifan taula daukan eranskina.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga egitatea**3. artikulua. Zerga egitateak dira:**

1. Bide publikoan ibiltzeko egokiak diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titular izatea, edozein mota eta kategoriatakoak direla ere, zirkulazio baimenean zehazten den helbidea udalerrri honi dagokionean.

2. Ibilgailua zirkulaziorako gai da baldin eta dagozkion erregistro publikoetan matrikulatuta badago, eta baja eman gabe. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena eta turismo matrikula duten ibilgailuak ere zirkulatzeko egokitzen dira.

3. Ez zaie zerga hau ezarriko honako hauei:

a) Antzinako modeloa izanik erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuak, baldin eta, salbuespen gisa, horrelako autoen erakustaldi, txapelketa edo lasterketa mugatuetan ibiltzeko baimena eman bazaie.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoiak eta erdiatoiak, 750 kg arterainoko zama erabilgarria dutenak.

III. Salbuespenak eta hobariak

4. artikulua

1. Hauek zergatik salbuetsita daude:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal eta toki erakundeen ibilgailuak, defentsarako edo herritarren segurtasunerakoak.

b) Ordezkaritza diplomatiko eta kontsulatuaren ibilgailuak eta karrerako agente diplomatiko eta kontsulatuetak funtzionario kreditatuak, haiek dagokien lurraldeko herritar badira. Ibilgailuek kanpotik identifikatuta egon beharko dute eta salbuespen hori elkarrekikoa izan beharko da, bai hedapenari eta bai neurriari dagokionez.

Era berean, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, bai eta bertako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideen ibilgailuak ere.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan xedatutakoetatik ondorioztatzen denaren arabera salbuetsi beharreko ibilgailuak.

d) Osasun sorospenerako edo zaurituak eta gaixoak eramateko ambulantiak eta gainontzeko ibilgailuak.

e) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorrak II. eranskinaren a letran aipatzen dituen mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuak, ezgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatuta daudenak.

Era berean, zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira 14 zaldi fiskaletik behera duten ibilgailuak, ezgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatuta daudenak eta haiek bakarrik erabiltzeko direnak. Salbuespen hau egoerak irauten duen artean aplikatuko da, bai ezgaitasuna dutenek gidatutako ibilgailuen kasuan, bai ezgaitasuna dutenak eramateko ibilgailuen kasuan.

Salbuetsita daude, orobat, guraso ahala, tutoretza edo kuradoretza dela eta ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa daukan pertsona baten ardura dutela frogatzen dutenen ibilgailuak.

Aurreko hiru paragrafoetan ezarritako salbuespenak ez zaizkie aplikatuko onuradun diren subjektu pasiboari ibilgailu bat baino gehiagorengatik.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako hauexek hartuko dira ezgaitasuna duten pertsonatzat:

a) Ehuneko 33 eta ehuneko 65 bitarteko minusbalioetasun gradua aitortua duten pertsonak, mugitzeko gaitasuna murriztuta dutenak. Halakotzat joko dira Ezintasun gradua aitortu, deklaratu edo kalifikatzeko prozedurari buruzko Errege Dekretuak (1971/1999 Errege Dekretua, abenduaren 23koa) III. eranskinean jasotzen duen baremoko a, b edo c letretan adierazitako egoeretako batean daudenak edo baremo horretako d, e, f, g edo h letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dutenak.

b') Ehuneko 65eko edo gehiagoko minusbaliotasuna duten pertsonak.

Aurreko a') eta b') letretan sartuta dauden pertsonen ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskineko baremoko a letrako mugitzeko gaitasun murriztuko egoeretako batean badaude eta ibilgailua gurpil aukiekin erabiltzeko egokituta badago.

f) Hiriko garraio publikoko zerbitzurako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, baldin eta bederatzi plaza baino gehiago badituzte, gidariarena barne.

g) Nekazaritza Makineriaren Erregistro Ofizialean (ROMA) izena emanda dauden traktoreak, atoiak eta erdiatoiak eta makineria.

2. Artikulu honetako 1. apartatuko e) eta g) letretan azaltzen diren salbuespenak aplikatu nahi dituztenek eskaera aurkeztu behar dute, eta harekin batera honako agiri hauek:

a) e) letrako salbuespena:

Desgaitasunen bat duen pertsona baten izenean matrikulatutako ibilgailua, berak bakarrik erabiltzen duena:

*Zirkulazio baimenaren fotokopia.

*Arabako Foru Aldundiak edo organo eskudunak emandako desgaitasunaren ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua. Ez da nahikoa izango balorazio taldeak emandako irizpen tekniko fakultatiboa.

*Gidabaimenaren fotokopia (aurreko aldea eta atzekoa).

*Ibilgailuaren fitxa teknikoaren fotokopia konpultsatua.

Ezinduak eramateko ibilgailua:

*Aurreko puntuan eskatzen direnak.

*Udalari ibilgailuaren xedearen frogatzeko aurkeztutako agiriak:

- Interesdunaren adierazpena.
- Enpresaren ziurtagiriak.
- Mugitzeko arazoak dituzten pertsonak eramateko ibilgailuek eduki ohi duten aparkatzeko txartela.
- Agintaritza edo pertsona eskudunak emandako beste egiaztagiri batzuk.
- Guraso ahala, tutoretza edo kuradoretza dagoen kasuetan, horren ziurtagiria.

b) g) letrako salbuespena:

* Zirkulazio baimenaren fotokopia konpultsatua.

* Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua.

* Ibilgailuaren titularraren izenean egindako nekazaritzako ikuskapenaren txartelaren fotokopia konpultsatua.

Salbuespen hau ezingo da aplikatu udal administrazioak egiaztatzen duenean nekazaritzarako traktorea, atoa edo erdiatoia nekazaritzakoak ez diren produktuak edo salgaiak garraiatzeko erabiltzen dela, edo ez dela beharrezkoa nekazaritzako ustiapenerako.

Urizaharreko udal administrazioak salbuespena onartu ostean, horren ziurtagiria emango da.

Salbuespena ez bada eskatzen ibilgailuaren altarekin batera, eman eta urtebetera jarriko da indarrean.

IV. Subjektu pasiboak

5. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, eta otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako Zergei buruzkoak, 35. artikulua 3. apartatuan aipatzen dituen entitateak, baldin eta ibilgailua haien izenean agertzen bada zirkulazio baimean, bai eta testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziak ere, baldin eta Foru Arau honen 1. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

V. Kuota

6. artikulua

1. Tarifen taularen arabera eskatuko da zerga; eranskinean dago jasota taula hori.

2. Ibilgailu mota zehazteko, arautegietan ezarritakoa hartuko da kontuan; arau hauek ere kontuan izango dira:

a) Ibilgailu bat furgoneta izango da baldin eta turismo ibilgailu bat pertsonak eta gauzak eramateko garraio mistorako egokitzen bada, dela plazak eta beirak kenduz, dela ateen tamaina edo kokapena aldatuz edo ibilgailuaren jatorrizko modelo funtsean aldatzen ez duten aldaketak eginez.

Furgonetek, potentzia fiskalaren arabera, turismoen zergak ordainduko dituzte, kasu hauetan izan ezik:

Lehenengoa. Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago eramateko prestatuta badago, gidaria barne, autobusei dagokien zerga ezarriko zaio.

Bigarrena. Ibilgailuak 525 kg-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena badauka, kamioiari dagokion zerga ezarriko zaio.

b) Zerga honen ondorioetarako, motogurdiak motozikletatzat hartuko dira, eta, beraz, zilindradaren arabera ordainduko dituzte zergak.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, trakzioa duen zatiak eta hark tiratutako atoiak edo erdiatoiak, biek aldi berean eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dituzte zergak.

d) Ziklomotor, atoi eta erdiatoin kasuan, beren edukiera dela-eta matrikulatzera behartuta ez badaude, zirkulaziorako egokitzen joko dira Industria Ordezkaritzak dagokion ziurtagiria eman duen unetik beretik, edo, hala badagokio, benetan zirkulazioan daudenean.

e) Makina autopropultsatuek, trakzio mekanikoko beste ibilgailu batzuek tiratu beharrik gabe bide publikoetan ibil daitezkeenek, traktoreen tarifen arabera ordainduko dute zerga.

f) Tarifetako d) apartatuan azaltzen den "traktore" izendapen orokorraren barruan sartzen dira traktokamioiak eta "obra eta zerbitzuetarako traktoreak".

g) Lur orotako ibilgailuak turismotzat hartuko dira eta potentzia fiskalaren arabera ordainduko dute zerga.

h) Ibilgailu misto moldagarriek baimendutako plazen arabera ordainduko dute zerga:

1. Eserlekuen kopurua (gidariarena zenbatu gabe) ibilgailuaren kategoriaren edo egituraren arabera gehienez egon daitezkeen erdiak baino gehiago ez badira, kamioiek bezala ordainduko dute zerga, zama erabilgarriaren arabera.

2. Eserlekuak (gidariarena zenbatu gabe) ibilgailuak bere kategoriaren edo egituraren arabera gehienez eduki ditzakeen erdiak baino gehiago badira, turismoek bezala ordainduko dute zerga, potentzia fiskalaren arabera.

i) Autokarabanak eta bizitzeko atondutako ibilgailuak turismo izango dira, eta potentzia fiskalaren arabera ordainduko dute zerga.

Ibilgailuaren potentzia fiskala, zaldi fiskaletan emana, Ibilgailuen araudi orokorra onartzeko Errege Dekretuaren 11.20 artikuluan xedatutakoaren arabera finkatuko da (2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa), testu beraren V. eranskinarekin lotuta.

VI. Zergaldia eta sortzapena

7. artikulua

1. Zergaldia urte naturalarekin bat dator, salbu eta ibilgailua lehenengoz eskuratu bada edo baja eman bazaio. Kasu horietan zergaldia ibilgailua eskuratzen den egunean bertan hasiko da edo Trafiko Buruzagitzan baja ematen den egunean amaitu.

2. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

3. Ibilgailua lehen aldiz eskuratzean, zergaren kuota eskuratze egunetik abenduaren 31ra bitarteko aldiari proportzionalki dagokiona izango da, edo ibilgailuari baja ematen zaion egunera arteko aldiari dagokiona, kasua hori bada.

4. Ibilgailuari baja ematen bazaio, behin-behinean edo betiko, zergaren kuota kalkulatzeko, urtarrilaren 1etik trafiko buruzagitzan ibilgailuari baja ematen zaion egunera bitarteko aldiari proportzionalki dagokiona hartuko da kontuan.

VII. Kudeaketa

8. artikulua

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den egoitzari dagokion udalaren egitekoak dira zerga hau kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, bai eta zergaren kudeaketan ematen diren egintzak berrikustea ere.

9. artikulua

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

10. artikulua

Udal administrazioak emandako ordainagiriaren bitartez egiaztatuko da zerga ordaindu izana.

11. artikulua

Ekitaldi bakoitzeko bigarren hiru hilekoan ordainduko da zerga; ez, ordea, hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetan, horrelakoetan bertan xedatutakoari jarraituko zaio eta.

12. artikulua

Ibilgailua lehenengoz matrikulatzen bada, edo ibilgailuan zerbait aldatzen bada eta ondorioz sailkapena aldatzen bada zergaren ondorioetarako, interesdunak agiri hauek aurkeztu beharko dizkiote Urizaharreko Udalari matrikulazio egunaren edo aldaketa egunaren ondoko 30 egun baliodunetan, zergaren matrikulan sartzeko:

- a) Zirkulazio baimena.
- b) Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.
- c) NANA edo IFZa.

13. artikulua

1. Trafiko buruzagitzan matrikulazioa, hau da, zirkulatzeko gaitasun agiria, eskatzen dutenek, aurretik kreditatu beharko dute zerga ordainduta dagoela.

2. Ibilgailuen titularrek trafiko buruzagitzari alde aurretik frogatu beharko diote aurkeztu zaien azken ordainagiria ordaindu dutela, kasu hauetan: ibilgailuak eraberritu badituzte, zergaren ondorioetarako sailkapena aldatzeko moduan; ibilgailua eskualdatu badute; ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den egoitza aldatu badute; edo ibilgailuari baja ematen badiote. Hala badagokio, kudeaketaren eta ikuskatzearen bidez, kontzeptu horrengatik sortutako, likidatutako, kobratzeko aurkeztutako eta preskribatu gabeko zor guztiak ordaintzeko eskatu ahal izango zaie.

Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja emanaz gero, ez dago aipatutakoa frogatu beharrik.

3. Trafiko buruzagitzek ez dituzte ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak izapidetuko, alde aurretik zerga ordaindu izana egiaztatzen ez bada.

Xedapen iragankorra

Martxoaren 31ko 12/2003 Foru Araua, toki ogasunak aldatu dituen, indarrean jarri aurretik, ibilgailu batzuk trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergatik salbuetsita egon dira uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauaren, zerga horri buruzkoaren, 2.1.d) artikulua testu zaharrean ezarritakoaren arabera. Ibilgailu horiek ez badute betetzen foru arau horrek finkatutako 2.1.d) artikulua testu berrian ezarritakoa, testu zaharreko salbuespena aplikatzeko eskubidea edukiko dute, ibilgailuak testu hartan salbuespena aplikatzeko ezarritako betekizunak betetzen dituen bitartean.

Azken xedapena

Udalaren ordenantza hau, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala egongo da aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza

Eranskina

Tarifa

IBILGAILUAREN POTENTZIA ETA MOTA	KUOTA (EUROTAN)
A) Turismoak:	
8 zaldi fiskal baino gutxiago	14,57
8 eta 11,99 zaldi fiskal bitartean	39,36
12 eta 15,99 zaldi fiskal bitartean	83,10
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartean	103,50
20 zaldi fiskal baino gehiago	129,37
B) Autobusak:	
21 plaza baino gutxiago	96,21
21 eta 50 plaza bitartean	137,03
50 plaza baino gehiago	171,29
C) Kamioiak:	
1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria	48,84
1.000 eta 2.999 kg arteko karga erabilgarria	96,21
2.999 eta 9.999 kg arteko karga erabilgarria	137,03
9.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria	171,29
D) Traktoreak:	
16 zaldi fiskal baino gutxiago	20,41
16 zaldi eta 25 zaldi fiskal bitartean	32,07
25 zaldi fiskal baino gehiago	96,21

IBILGAILUAREN POTENTZIA ETA MOTA	KUOTA (EUROTAN)
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek herrestan daramatzaten atoiak eta erdiatoiak:	
1.000 kg baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria	20,41
1.000 eta 2.999 kg arteko karga erabilgarria	32,07
2.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria	96,21
F) Bestelako ibilgailuak:	
Ziklomotorrak	5,10
125 cm ³ arteko motozikletak	5,10
125 cm ³ eta 250 cm ³ bitarteko motozikletak	8,75
250 cm ³ eta 500 cm ³ bitarteko motozikletak	17,49
500 eta 1.000 cm ³ bitarteko motozikletak	34,99
1.000 cm ³ baino gehiagoko motozikletak	69,97

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Urizarra, 2018ko azaroaren 22a

Alkatea

JUAN JOSE BETOLAZA PINEDO